

Kaixo guztioi,

Datorren asteartean, irailak 1, ikastetxeetara itzuliko gara.

Nafarroako hezitzaile talde bat elkartu eta lanean aritu gara Nafarroako Kontingentzia Planaren (2020- 2021 ikasturterako aurrez aurreko hezkuntza-jarduera garatzeko Prebentzio eta Antolaketa Protokoloa, abuztuaren 24ean eguneratua) inguruan gure erabateko desadostasunak dokumentu batean jasoz.

Dokumentu hau gutariko bakoitzak klaustroetan aurkezteko garaian, gida moduan balio dezakeen eskematxo bat osatu dugu.

Lehenengo eguneko klaustro honetan konstantzia utzi nahi dugu ozenki, irmotasunez, zintzotasunez eta determinazioz, ez gaudela batere ados kontingentzia plan honekin.

Ez dakigu zerekin topatuko garen berria eta lehenengoa izango den klaustro honetan, baina badakigu informazio labur eta zehatza jasoko dugula jarraitu beharreko protokoloen inguruan.

Ez dakigu ezta ere, zenbat lankidek bat egin edota babestuko duten proposatuko ditugun ideiekin, baina badakigu, hurrats bat aurrera egiten badugu errazago izango dela jendea honetara batzea.

Sinismen honekin ta kontziente izanda norbanako gisa emandako mugimenduen garrantziaz, sortu dugun eskema laburra, zintzoa eta sentitzen dugunetik egina da, betiere umeak erdigunean jarritz.

Guretzat garrantzitsua da bakarrik ez gaudela jakitea eta sentitzea. Baita gutariko asko egun horretan, momentu edota tarte berean guzti honi ahotsa jartzen egongo garela jakitea eta sentitzea ere.

Eskema hau eredu bezela proposatzen dugu. Gero noski, bakoitzak bere egitea gomendatzen dugu, balio diona erabiliz eta egin nahi dituen aldaketak eginez. Gure asmoa norbera eskemarekin eroso sentitzea da, horrela bermatuko baita bakoitzak sentitzen duen hortatik eta bere barrutik adierazi zein transmititzea.

Baliagarria eta lagungarria izango zaizuela espero dugu.

Hausnarketak

Hasi aurretik norberaren erdigunean jartzen saiatuko gara.

Atentzioa gure harnasketan jarritz egin dezakegu, lurra eta zeruarekin nola gauden konektatuta sentituz.

Horrela sentitzen baduzue, dekretu hauek erabili ditzazkegu:

Harmoniaren legea nire adimen eta nire gorputzean jarduten dabil.

Ekintza zuzenaren printzipioak nire bizitza gobernatzeko du.

Nire premisa gorena ezagutzen dut, bizitzaren betiereko egian oinarritzen da, badakit, sentitzen dut eta sinisten dut momentu honetan nire inteligentzia infinitoak inspiratzen nauela, behar dudan guztia bideratzen, sustengatzen eta eskaintzen.

Oraingo uste oso honek, aske uzten du nire barruan dagoen intelgentzia infinitua.

Presentzi sanatzaille, jakintsu eta indartsu honek, inspiratzen nau orain esaten nabilen hitzak adieraztera eta hitz hauek iritsiko direla, bidaliak izan eta aurrera eramango direla hau delako nire adimenaren legea.

Zoragarriak nire barruan dauden Inteligentzia Sortzailearen lanak.

Eskertzen bukatuko dugu.

Jarraitzeko eskema

1. Nola nago.

Nola sentitzen garen adieraziko dugu:

- ikaratuta
- suminduta
- itolarriarekin
- ...

Erokeri honen aurrean, egoera kaltegarri eta gizagabe honen aurrean,...

2. Zer behar dut.

Mesedez eskatzen dizuet, zuetariko bakoitzak izpiritu kritikoarekin begiratzea protokolo hauek, batez ere umeak eta hauen oinarrizko beharrak jartzea erdigunean, gizatasuna berreskuratu dezagun, esentzia, oinarrizkoa, konektatzen gaituena, bihotzera itzuli gaitezen eta gizakiarengan konfidantza berreskuratu dezagun.

3. Zer jartzen dut zalantzan (testuinguruan jarritz)

Jaso dugun informazioa.

Haurtzaroaren eskubideak ez direla errespetatzen:

- Jolasteko eskubidea (bizitzarako eta ikaskuntzarako oinarrizko beharra)
- Kontakturako eskubidea
- Espazio atsegin eta ziurraren eskubidea
- Binkuloak izateko eskubidea.
- Lasterka egiteko, arnasa hartzeko, sentitzeko, oihu egiteko, negar egiteko, muxuak emateko, ... eskubidea.
- Ukitu eta ukitua izateko eskubidea.
- Izaki bizidun bat bezala begiratua izateko eskubidea.

Hau dena, Osasun Publikoa lehenetsiz haurren osasun psikologiko eta emozionalaren aurrean

4. Eta galdetzen dut?

- Parte hartzaile ektiboa izan nahi dugu guzti honekin?
 - Gizagabetasun honen konplize izan nahi dugu?
 - Eskola espazio ziur eta atsegina izan beharrean, beldurra, mesfidantza eta ziurgabetasuna nagusi izango den espazio bat eskainiko dugu?
 - Ez ote gara okertzen ari?
 - Ez ote gara sustatzen ari atzerabiderik izango ez duen mina?
 - Ez ote gara ari zintzotasunik gabe, ekitaterik gabe, kritikarik gabe, fundamentu garbirik gabe, egokitasunik gabe, ebaluazio aproposik gabe, informazio egokirik gabe, ... jarduten?

5. Errealitatea

Ikasleak gaixotuko dira beti gaixotu izan diren bezala, batak bestea kutsatuko du beti gertatu izan den bezala. Eztabaidaezina da, gure sistema inmunea gaixotasunak gaindituz garatu eta indartzen dela.

Gu ere gaixotuko gara, beti gaixotu izan garen bezala. Beldurra, estresa eta bakartzea faktore kaltegarriak dira eta sistema immunorologikoa ahultzen dute.

6. Gonbidapena

Beste informazio iturri batzuek kontsultatzea gonbidatzen zaituztegu (OMS, mundu guztiko egiaren aldeko medikuak, ikerketa zientifiko independenteak)

7. Indartsu eta sinistuta

Asko gara! Hezitzaileak, gurasoak, aiton-amonak, medikuak, sanitarioak, filosofoak, bilogoak, abokatuak eta era askotariko profesionalak egoera honen aurrean lanerako elkartu garenak, elkarri babesa emanaz, ofiziala ez den informazioa eskainiz, eta are jende gehiago elkartu daitekeen ekinbideak sortuz.

Ez gaude bakarrik!

8. Esaldi bat

Sentitzen eta indartzen gaituen esaldi batekin bukatzea gonbidatzen dugu. Adibidez: Bizitza ikasle eta maisu garen ibilbide luzea da. Batzuetan irakastea egokitzen zaigu baina egunero-egunero ikasten dugu.